



testua/by: arkaitz billan

kobazuloko doinuak mursego

She has often worked with Maite Arroitauregi, Anari, Lisabö, Napoka Iria, Kokein, Gora Japon and Ibon R.G. on various projects. After selling all the copies of the first disk, *Mursego* (which means "bat" in Portuguese) is putting together the second one.

—We've seen you working on many shared projects up to now, how do you get on working by yourself?

Mursego is different, they're songs I've written and I don't have to wait for anybody else to create or rehearse them. Until now, I'd always working with other people's compositions, and now it's with my own ones.

There are also lyrics by Laboa and a PJ Harvey version on your disk.

I look on doing versions as an exercise, an exercise before composing, and a very agreeable one, what's more. I also play Kraftwerk's "The Model" live.

And, with that, you change the vision we had had until now with your cello.

Normally, the way of writing and singing are different, I've broken away from the classical tendency and, using pedals, I make use of various loops and create songs on top of them.

Basque, English, Russian. Languages aren't an aesthetic decision, but they are an aesthetic option. It is an aesthetic offer, we do offer something after creating songs.

Bats come out at night.

And they see the world the other way around. Sometimes you understand the world better if you look at it from another point of view. Piztiak sang this "I'm fine, you're the opposite".

There's cinema there too.

Lots of people have told me there's a cinematographic sound to it, but that's happened unconsciously. Live, I use the lyrics of the film "The Man without a Past" and, recently, an adaptation of the song Marilyn Monroe sings in "River of No Return".

"Bat.1" is the disk's title, is "2.0" going to be the next one?

It's just the name in English and the disk's number. The second one will be *Bat.2*, and I want to bring it out on vinyl. I've sold all the copies of the first disk and I'm working on the second. I don't use social networks a lot, but myspace has helped me to get to a lot of places.

cave sounds

Maite Arroitauregi hainbat proiektutan kolaboratzen ikusi izan dugu: Anari, Lisabö, Napoka Iria, Kokein, Gora Japon, Ibon R.G... Orain, *Mursego* (saguzarra portugesez) sortu du. Lehen diskoa agortu ostean, bigarrenaren bila doa.

Proiektu askotan kolaboratu duzu orain arte. Nola moldatu zara bakarrik lan egitean?

Mursego ezberdina da, nik sortutako kantak dira, eta ez dut beste inoren zain egon beharrik sortzeko edo entseatzeko. Orain arte beste batzuen konponketak egiten ibili naiz, eta, orain, nik sortu dut dena.

Laboaren letra edo PJ Harvey-ren bertsio bat entzun dezakegu zure diskoan. Bertsioak egitea ariketa bezala hartzen dut; konposatu aurreko ariketa, gainera, oso atsegina da. Zuzenean Kraftwerk-en "The Model" ere moldatzen dut.

Eta horrekin, orain arte Cello-arekiko genuen ikuspuntua ere aldatu duzu. Orokorrean, konposatzeko eta kantuak egiteko modua ezberdina da. Joera klasikoarekin hautsi dut, eta, pedalaren laguntzarekin, loop ezberdinak erabiltzen ditut horien gainean kantua sortzen joateko.

Euskara, ingelesa, errusiera... Hizkuntzarena ez da erabaki estetiko, baina bai aukera estetiko. Ekintza estetiko bat da, kantuak sortu ondoren eskatzen zidaten zer bait, alegia.

Saguzarrak gauez irteten dira. Eta mundua alderantziz ikusten dute. Askotan mundua beste alde batetik begiratzen baduzu hobeto ulertzen duzu. Piztiak-ek abesten zuen hori: "ni ondo nago, alderantziz zuek zaudete".

Zinea ere hor dago. Askok esan didate soinu zinematografikoa dudala, baina inkontzienteki egindako zer bait da. Zuzenean "Un hombre sin pasado" filmeko letra bat erabiltzen dut eta, azkenaldian, Marilyn Monroe-k "Rio sin retorno" filmean abesten duen kantuaren moldaketa ere egiten dut.

"Bat.1" da diskoaren titulua. Hurrengoa "2.0"? *Bat* saguzarra da ingelesez, eta 1 zenbakia lehen diskoa delako. Bigarrena ere etorriko da: *Bat.2*, biniloan argitaratu nahi dudana. Lehenengo diskoko ale guztiak saldu ditut eta bigarrena grabatzekotan nabil. Sare sozialen kontua ez dut gehiegi jarraitzen, baina myspace-ak leku askotara iristen lagundu dit.